

V Nazioetako Torneoaren
laugarren jardunaldia

Baliteke 90ekoa errepikatzea

Gaur Eskoziak Ingalaterrari neurketa irabazten badio Kopa bereganatuko du



Iaz Ingalaterrak irabazi zuen. Wainwright eskoziarra baloiarekin joan den urteko partiduan.

REUTER

16.00, France 2

ESKOZIA / INGALATERRA

Telfer. / Rowell

1 Hilton	1 Rewntree
2 MacKenzie	2 Regan
3 Wright	3 Leonard
4 Campbell	4 Archer
5 Weir	5 Jonson
6 Wright	6 Clarke
7 Wainwright	7 Dallaglio
8 Peters	8 Richards
9 Redpath	9 Dawson
10 Townsend	10 Grayson
11 Dods	11 Underwood
12 Jardine	12 Carling
13 S. Hastings	13 Guscott
14 Joiner	14 Sleightolm
15 Sheperd	15 Catt

Epailea:

Derek Bevan (Gales)

Zelaia:

Murrayfield (Edimbourg)

Koldo Alduntzin / Donostia

ziren eta baita Torneoan ere 21-12. Ondoren, 1992koan 25-7, 1993koan 26-12, 1994koan 15-14. Partidu honetan, Callard atzelariak zigor kolpea gauzatu zuen azken minutuan 50 metrotik eta espero ez zuten garaipena lortu zuten larrosakoek.

Iaz, berriz, Eskoziak Grand Chelema lortzeko helburua eraman zuen Twickenham-era. Ingelesak, ordea, etxean ez zuten hutsik egin eta 24-12 nagusitu ziren, hamaikagarren Grand Chelema eskuratuz. Rob Andrew joko zabaltzaile ingelesak erdietsi zituen larrosakoen puntu guztiak ostikoz, zazpi zigor kolpe eta drop bat. Eskoziako gehienak, berriz, Gavin Hastings-ek. Azken hau amerikar Rugbyra pasatu da eta Andreuw-k utzi egin du selekzioa.

Eskoziarrak aurreratu baziren

ere, ingelesak dominatu zuten. Lehen zatia 12-6ko emaitzarekin amaitu zen. Hori, ordea, 66. edizioan gertatu zen, eta 67. hone tan antzeko egoeran egon arren, txapelketa ez da gaur amaituko.

Martxoaren 18ko neurketa hura kontuan hartuta, gaur 10 jokalarik errepikatuko dute hamabostekoa Eskozian eta zortzik Ingalaterran. Eskoziarrek gainera, Frantziaren kontra zelairatu zen hamabosteko bera zelairatuko dute. Ingalaterrak, aldiz, Tim Rodber eta Martin Bayfield-en bajak ditu. Aurrenekoaren ordez Richards beteranoa zelairatuko da eta bigarren lerro erraldoiaren ordez Archer-ek jokatu du.

Sortzaileak 1871n, Eskoziaren garaipenarekin • Askotan adierazi badugu ere, bi Nazio hauen

norgehiagokak eman zion hasiera txapelketari. Lehen partidua Edimburgen jokatu zen 1871ko martxoaren 27an eta Eskozia nagusitu zen 4-0. Harrezkero Calcuta Cup deitu izan zaio bien arteko norgehiagokari.

Eskoziak orain arte jokaturiko hiru neurketak irabazi egin ditu, garrantzitsuena Frantziaren kontrakoa. Ingalaterrak, berriz, Frantziaren kontra galdu egin zuen eta Galesi irabazi. Rowell entrenatzaile ingelesak badaki oso ondo zer-nolako jokoa egiten duen Eskoziak, eta horregatik, argi utzi die jokalariei baloia berarek eduki behar dutela denbora luzean, zutik iraun behar dutela eta aurrelariak metro gutxitan jokatu behar dutela. Pentsak kritika zorrotzak egin dizkie eta presionaturik jokatu dute ondorioz. X

Irlandak azken aukera dauka Galesen aurka

■ Bi selekzioek Zurezko Koilara izango dute jokoan gaur Dublinalin

17.30, France 2

IRLANDA / GALES

Kidd / Bowring

1 Popplewell	1 A. Lewis
2 Clarke	2 Humphreys
3 P. Wallace	3 J. Davies
4 Fulcher	4 Llewellyn
5 Davidson	5 D. Jones
6 Cokery	6 E. Lewis
7 Costello	7 G. Jones
8 McBride	8 Taylor
9 Hogan	9 Howley
10 Humphreys	10 Thomas
11 Woods	11 Proctor
12 Field	12 N. Davies
13 Beil	13 L. Davies
14 Geoghegan	14 I. Evans
15 Mason	15 J. Thomas

Epailea:

Didier Mené (Frantzia)

Zelaia:

Lansdowne Road (Dublin)

K. A. / Donostia

DUBLINGO Lansdowne Road-en zurezko koilararen arriskupean jokatu dute Irlandak eta Galesak. Irlandarrek 45-10 galdu zuten Parisen frantziarren kontra eta belarrondokoak min egin die hirustako bihurriek. Gaur erakutsi beharko dute Paris-koa ahaztuta dagoela, bestela, Ingalaterraren aurkako azken partidua kalbario bat gerta dakieke. Eskoziaren kontra ere galdu egin zuen etxean, beraz, irabaztea besterik ez dute buruan.

Azken unean Geoghegan hegala errekupeatu dute eta horrek laguntza pittin bat emango die. Izango ez dena, Peter Clohessy harroina da, gogor zigortu baitute. Staples lesionaturik dago. Galesak Ingalaterra eta Eskoziaren aurka galdu badu ere, Kevin Bowring-ek entrenatzen dituen «deabru gorriek» itxura hobe erakutsi dute eta ez dute urrun izango, ez, garaipena.

Elkarren aurka jokaturiko 97 partiduetatik, Irlandak 34 irabazi ditu, Galesak 57, eta seitan berdindu dute. Iaz, belarrondoko galanta eman zuten irlandarrek 12-16 irabaziz Cardiffen. Porrot horrekin zurezko koilara bereganatu zuten galestarrek. X

Emakumezkoen txapelketa Plentzian

Asteburuan, Espainiako autonomien arteko txapelketa jokatu da lau selekzioen partaidetzaz

K.A. / Donostia

Madrid iristea finalera, baina etxean jokatzek ere zerbaiterako balioko du. Gainera, Herm talde frantziararen aurka itxura ona eman zuten euskal neskek.

Bizkaiko Plentziako Ardanzas instalakuntzetan jokatu da txapelketa osoa, Gaur, Katalunia eta Galizia neurtuko dira 11.00etatik aurrera eta Euskal Herriak 12.00etan jokatu du Madrilen aurka. Garaileek, bihar jokatu dute finala 12.00etan, eta hirugarren eta laugarren postuetarako, goizeko 10.30etan Ardanzas-en.

Lehen aipaturiko Katalunia eta Madrilgo taldeak izan dira orain arte klubon arteko txapelketa guztiak irabazi dituztenak. Getxok, ordea, ez du lan txarra egin

hauen aurka. Getafe, Alcobendas, Majadahonda eta Liceo Frances talde indartsuak dira.

FER Kopa jokoan jarriko da gaur bost talde euskaldunekin

Lehen mailako hamabi taldek hartuko dute parte gaur hasiko den Espainiako FER Kopan. Hori etatik bost euskaldunak izango dira, Mungia, Gernika, Kakarraldo, Bilbao eta Ordizia. Lehen kanporaketa hau, final-zortzirenari dagokio eta hauek izango dira neurketak: Independiente de Santander-Mungia (La Albericia 15.30, gaur), Burgos-Gernika (San Amaro, 12.30etan bihar), Kakarraldo-Minotouro (Txipios, 16.00 gaur), La Moraleja-Bilbao (Alco-

bendas, 17.00 gaur), Zaragoza-Madrilgo CAU (bihar) eta Ordizia-Liceo Frances (Anoetan, 11.00etan bihar).

Kanporaketa hau neurketa bakarrera jokatu da eta garaileak final-laurdenetara pasatuko dira. Galiziako CRAT Xestur zuzenean sailkatuko da. X

San Fermin Ikastolak Arte Ederretan edota edozein injeniaritzatan lizentziatu bat behar du, UBI-n Marrazketa Teknikoa emateko ordezkapen bat eginez. Interesatuak, bidali Kurrikuluma lehen bait lehen honako helbide honetara: **San Fermin Ikastola, San Emeterio z/g - Zizur Txikia (31191)** Tel.: (948) 18 39 03/04 - Faxa: (948) 18 39 02